

## **FUNTSEZKO BALIABIDEAK**

Gure proiektua burutzeko erabiliko dugun materiala, kontuan izanda lortu nahi dugun produktua zein den, berezia izango da. Material hori Alemanitik inportatuko, dugu teknologia berrietarako materiala oso kalitate onekoa delako.

Langileen aldetik, pertsonal kualifikatua nahi dugu gure enpresan, hortaz, esku-langileek formakuntza berezia jasoko dute. Teknikari eta administratzaileek enpresa, finantza eta zuzenbide inguruko unibertsitate-gradu bat eduki beharko dute nahitaez; honek egin beharrekoaren inguruan jakinduria duela ziurtatzen duelako.

Eraikinei dagokionez, fabrikak beharko ditugu, baita erakusketa-denda txikiak ere, kaletik doazen ibiltariak dendara hurbildu eta gure produktua ikusteko (honela bezero potentzial gehiago lortzeko eta kaleetan gure enpresa ezagutzera eramateko).

Baliabide-intelektualen alorrean, guztiz funtsezkoa da patentea lortzea, hau da, gure produktu eta ideia babestuko ditugu beste enpresek gure negozio-idea ez lapurtzeko.